

«OLERTI»-REN URTEROKO SARIKETA

Aurreko urteetan lez, ospe aundiz egin zan igaz be (1962-X-28) OLERTI'k eratutako olerki ta bertso-jala. Meza, itzaldi, sari-banaketa, olerki irakurte, alkar-izketa, bazkari ta abar, ederto be ederto dana, barne-giro gozo-tan. Etxaniz jaunak egin euskun eleiz-itzaldia, ta Erkiaga'k arratsaldekoa, Aita K. Basabe lekeltiar izlari ta euskaltzale zindoaren biizitz-gorabera ta euskal-lan-zeaz-tasunak trebeki emonik.

Aurretik iragarrita egoan sariketa onetara poesi-mor-doska bialdu eben or-emengo euskal-olerkariak. Esku arteko banako ontan daukaguz aretatik batzuk, eta besteak be argitaratuko doguz urrengo zenbakietan.

Eta zer-nolako olerkiak ete ditugu oneik? Bikaiñiak ala eskasak? Beruntz ala goruntz ete gabiltz poesi-arloan? Aldatz-gora gabiltzala, nik uste. Gaurkoz be ba-doguz Euskal-Erriari Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Loramendi, Tapia-Perurena, Agerre ta abar joan yakuzan arren-olerkari punterengoak. Gure olerkari-sailla gero ta ugaritu ta leunagotuz doa: urtero agertzen yaku arnas aundiko barriren bat, eta zarrak azal ta mamin gizonkiago diardue. Gure ele gaixoarentzat ezta au zantzu txarra.

Ona emen laburto, maiko bik sariketara igorritako olerkial buruz emoniko eritxia. Etxaniz'tar Nemesi jaunak onela diño bere idazki baten: «Nolabait eman diet begi-axaleko iritxia. Baiña nere iritzia ez aintzakotzat artu; ezpainaiz ontan oso errotua. Amarreraiño igo det nere puntuetan. Ona emen nori zenbat eman dizkiodan:

- 1) Animaren gaua: 8.
- 2) Bost bizitz ozpin: 10.
- 3) Aita alarguna: 9.
- 4) Izar: 5.
- 5) Saratz bezela: 8.
- 6) Basoan dot zoriona: 8.
- 7) Gabaren bidez: 7.
- 8) Basoko iturria: 7.
- 9) Poema beltzaren arbola: 10.
- 10) Siñes-itxadon-maitasuna: 5.
- 11) Aralar: 6.
- 12) Gure euskal dantzak: 6.
- 13) Biarritz: 5.
- 14) Euskal koblakaria: 10.
- 15) Aurtzaro-oroipenak orrazten: 10.
- 16) Bedar-usaiña: 9.

Agian, arrituko zaitu nere irizpideak. Ez naiz arritzen. Espaldut nere iritziaren arrokeririk. «Poema beltzaren arbola» ta «Euskal koblakaria», esku batenak dirala, esan ditekela, uste dut. Ez ditut oro ulertzen, baiña era berria dutelako, euskarari aberastasun-bidea dakarkiotelakoan nago. Zenbait itz, erdel-kutsu geiegizkoak dituzte; baiña, ala ere, bere alfean etsigarriak zaizkit.» Eusebio Erkiaga euskaltzain eta olerkari piñ danak, barriz, onela agertzen daust bere eritxia:

	Puntuak	Neurridun	Bertsu
1) Animaren gaua	6		X
2) Bost bizitz ozpin	7		X
Bost maitasun kopla	3		X
3) Aita alarguna	7	X	
4) Izar	5	1/2	
5) Saratz bezela	7		X
6) Basoan dot zoriona	6		X
7) Gabaren bidez	6		X
8) Basoko iturria	6		X
9) Poema beltzaren arbola	10		X
10) Siñes-itxadon-maitasun	3		
11) Aralar	5	X	
12) Gure euskal dantzak	5	X	
13) Biarritz	5	X	

«Lanik geienak (13'tik 9), bertsu askatsu edo txuriez bitribilduak dira. Alde batetik ba leiteke, olerkari diralakoak asmamen-egoak nasaiago erabilteko aukerea izatea. Baiña neurripean dabillen edertasunak, beti izango dau-ala ballo bedegarra ta andiagoa, esan giñei. Edozelan bere, ba-dirudi bertsu askatueta bere, arako ripio-joera edo jario-beratsuna izatea, bertsegilleak tentaziñoa entzuturrean izan dagikelako. Jakiña!

a) «Poema beltzaren arbola.» Gogorra da muiñez, gunez; baiña zoli ta zorrotza, sentimentu sakonekoa, urduriez aberatsa egingaletan. Zaar kutsua dauka iñoiz; barrikuntza-ikutua, areago. Euskal baratzean berekia baldin ba'da —ez itzulia—, ale bana-banako.

b) «Bost bizitz ozpin» eta «Bost maitasun kopla.» Lendabiziko bost atalak, mingotsak; iñoiz prosaiko-sundaz. Bigarren bost ataletarik geienak, senu ta polilagoak, blotzondoa agiri dabenak.

Olerkari biok dabe poesi-txingarra ta dardarea. Bion lanak, oster, neurrikabeak dira, askatuak, ez izneur-tuak. Liriku-sail ori, ez ete litzateke alde bitan banatu bear, neurridunak eta ainbakoak berexiaz? Ikasi bearreko koxkea auxe, nunbait bere.

«OLERTI»-ren Olerki-sariketa

OLERTI ba-doa aurrerantza, beñola artu eban asmoari lotua. Jakiña, lan geiago ta kementsuago egin naiez. Euskera arloan sail zabala baitogu, oraindik erdi atxurtua. Gabiltzan polito polito, ta baikor, eta zerbait lortuko dogu ziurrik asko.

Aurten be, beste urteetan lez, olerti-eguna ta olerki-sariketa izango ditugu.

Olerti-eguna —ez aitzu— lenengo urteetan lez, Kristo Erregeren egunean ospatuko dogu, au da, urrillaren 30'an, illaren azkenengo domekan.

Olerki-sariketa, barriz, onela:

I.—*Poesi liriku bat*: edozein gai ta luzera: 1.000 laurleko.

II.—*Poema bat*, bertan gure edestia aizatuko ba'litz askoz obe: 1.000 laurleko.

III.—*Amar alegi txiki*; ipuin txikiak, polito bertso borobilduta: 500 laurleko.

IV.—*Bertso-sail txikia*: amabi bat bertso berri, laubost ahapaldi bakoitzak: 500 laurleko.

Oarrak:

- 1) *Maikoak*: N. Etxaniz, E. Erkiaga ta A. Onaindia.
- 2) *Noizko bidali*: iraillaren 30'rako.
- 3) *Zelan bidali*: a) Makiñaz edo eskuz argi idatzita; b) Lan bakotxaren buru-buruan, zein gairako dan adierazoko dauan zenbakia jarri; d) Poesi edo sorta buru naiz oñean ez ipiñi egillearen izenik; e) itz berezi batzuk jarri ezaugarritzat, eta ondoren, eztalki txiki baten barruan, egillearen izen abizen eta zuzenbidea daukazan txarteltxo bat sartu; etalki au itxi ta, lanarekin batera, aundiago baten barruan bialdu.
- 4) *Lan bialdutakoen jabetza*: Sarituak, OLERTI'renak izango dira; enparauak be, dain diranak beintzat, berak argitara emongo ditu.

«OLERTI»-ren urteroko sariketa

Kristo Erregeren egunean, laugarrenez ospatu gendun aurten «Olerti»-k urtero eratuten dauan poesi-sariketa.

Berandu samar iragarria izanda be, gure olerkariak ba-eben egun orren barri ta amasei bat izan ziran sariketara euren lanak bialdu ebezanak; 28 olerki guztiz. Maikoak, N. Etxaniz'ek, Eusebio Erkiaga'k eta Aita Onaindia'k ikusi ta aztertu ebezan olerkiok, eta joandako urrillaren 27'an, sariak banandu, olerki sarituak irakurri, beste urteetan lez euskal olerkari edo idazleren bat goratu ta bere euskal-lana arakatuz (Enbeita'tar Kepa'rena aurten) itzaldia entzunik, Olerti-egun atsegingarria ospatu zan Larrea'n, Bizkai biotzeko txoko zoragarrian.

Olerti-batzaldi onetan, ona nortzuk izan ziran sarituak eta aipatuak:

I. LIRIKU SAILLA. Lenengo saria, osorik, Aita Gandiaga'k jaso eban, bere olerki *Argi oneko poema*'gaitik; bigarrena, zatituta, Muniategi'tar Sabin'ek eta Ugarte'tar Martin'ek. Aipamenak: «Izadiarekin eskuz esku», «Andrakillatxo» ta «Gau-eresia», Muniategi'tar Sabin; «Aberriari koplak», Aita Iztueta; «Otsein» eta «Aitamak», Paulin Solozabal, «Au bizimodua!», Inozenzio Olea; ta «Baita ez», Aita Iztueta.

II. EPIKU SAILLA. Bordari (F. Artola) txapeldun bere «Etorkia»-rekin.

III. BERTSO SAIL TXIKIA. Enbeita'tar Balendin'en «Lapurra ta Txakurra», Enbeita'tar Abel'en «Txingarapala» ta Satarka'ren «Udakena sarituak

Oarra.—Datorren urtean be, Jauna lagun, beste ainbeste egingo dogu; ots, olerki-sariketa izango da emen Larrea'n. Olerti-sail bardiñak: 1) *Poesi liriku bat*; 2) *Poema bat*; 3) *Amar alegiko* edo *ipuiñeko saila*, ta 4) *Bertso txiki sorta*.

Olerti-eguna, aian be, aldatu egingo dogu, aurtengo jaiari erabagi zanez; Kristo Erregearen eguna ez yatorke askori egoki, batez be apaiz eta prailleai. Augaitik, aurrerantzean, urrillaren 12'an, Arbilleko Andra Maria'ren egunean ospatuko dogu jai ori; egun orretan, bada, —erriz jai ta eleizaz ez— danok gagoz azke.

Lanak biartzeko epea, beraz, dagonillaren 31'an amaitzen da.

Eta itz bi, azkenez, gaurko olerkariari buruz.

Sariketara aurkeztu dabezanak eztira edozelakoak izan sakin, asmotsu, arin ta txanbeliak baiño: batzuk onen beste batzuk arela, guztiak alan be atsegingarriak. Gazte-talde galanta dogu olerki-arnasak joa, gure inguru izkuntzetan baiño be geiago neurri batean. Eta au txalo bearra dogu; olerkariak baitira izkuntzak zuzpertz ta ja oi dabezanak, orrela egin dabe an naiz emen.

Kontuz ibilli bear, alan be. Gaurkoz alde guztietan d kusgu egon-eziña, urduritasuna. Onerako ala txarrerak Txarrerako, askoz errezago, berez bait-goaz aldatz-beer. Kontuz ibilli ezik, bada, errezto txirrist egingo. Eusk olerkariak ez diñot nik bide badaezpadakotik dabilzan baiña inguruan dogunagaz oso-osorik joan ezkeron, arri kuan gabiltzala bai. Bide barriak beti dira onak, ala be geiegikeri andi barik; gure izkuntza, oindiño, geiegikeri askorako ez daukagu. Gabiltzan urte batzuetan bid lau ta errezez, olerki-sail ta mordo andia osotu arte, t gero ekingo barruti zaillagoetatik.

Ona Etxaniz jaunak, azkenengo sariketarako aurkeztu riko olerkariak irakurri ondoren bialdu eustan eritxia olerkari trebe ta jakitun bizkor dogunez, aintzat artzekoak ditugu bere esanak.

«Gure olerkariak —diño—, Aresti'ren joerak bultzata, gandu-olerki ta esan luzeak asmatzen dizkigute. Luzeak, oso gueneko olerkia izan ezik, irakurlea aspertz egiten du. Iduri illunak, bat edo bestek, ez du olerkiaren indarra galtzen; baiña ugaltzen ba'dira, aspergarri ta illunegi egiten dute olerkia. Beste batzuek, bertso ohiak dakartzkigute, baiña noizean bein, belarri-min jartzen dira, bertsoaren etena aldatzen dutelako edo puntuaren gosez, esana beartuaz. Poemak, berez du bere luzeera, baiña ortik kanpora, nik, naiago nuke, gure olerkariak, luzez baiño iduri biziz eta esan goiko olerkiz bikaiñago agertzeko ba'lira. Lizardi ta Orixe'ren urratsetan, ba-degu oraindik sailik asko jorratzeko. Beste erderatan ain zabalduak diran, poesi abstrakto oriek, gerorako lagatzea obe izango degu. Ezpaidegu oraindik, erderak burutu duten biderik gaindu. Oraindik, agian, ez da gure ordua. Euskera elduga ta egosiago daitenean, orduan ba'diteke ordu ohea izatea olerki illunetarako ta ulerkaitzetarako. Ederrez joka ta irabazi dezagun, ez aldrebeskeriz.»

Eredu bikaiñak jarten dauskuz begi aurrean, Lizardi ta Orixe baitik-bat, edozein literaturatan —gaurkoetan be bai— bekokia argi agertzeko lain diranak.

A. O.

OLERKI-SARIKETA

Bizitza zer' ete? Barne-indarra. Eta, inguruko izadiari gagokiozala, abere ta landaren ernetze, azte, loratze ta igalitzean daukagu bizi-kemen orren agerpenik bikaiñena. Orrela dagi munduak milloika urteetan, iñoliz be aspertu barik.

Giza-adimenak be ba-dau bere bizitza, barne-indar bereziaren eragin yaukala. Jakintza saillean maillaka maillaka diardu lanean, poesi-zelaikoa kaskarren eztaula.

Mundu guztiak dagiana, guk euskaldunok ez ete? Olerti-soloan ez gabiltz, zorlonez, orren atzeratuak. Besbe gai askotan lez, elertian ez gara euskaldunok kamots, eta ertirako gaitasun ori gaur iñolizkorik gelen adierazo daroagu.

Euskal olertia, beiñolako erasoaldi latzaren ondoren, azi ta loratuaz doakigu. Garate osora ez gareala oraindik eldu? Giro dagigun lurra gero ta geiago, ta berez egingo yaku lora-lertze bikaiña. Ortarako sariketak, lurra girotzeko.

OLERTI'k, beraz, aurreko urteetan lez, aurten be bere sariketa iragarten dau. Ona galak eta sariak:

I.—*Poesi liriku bat*, edozein gai ta luzean: 1.000 pezeta.

II.—*Poema bat*: 1.000 pezeta.

III.—*Amar alegiko sorta*, au da, amar ipuin txiki, bertsoetan borobilduta: 500 pezeta.

IV.—*Bertso-sail txikia*; amabi bat bertso berri, lau-bost ahapaldi bakotxak: 500 pezeta.

Oarrak: 1) *Maikoak*: N. Etxaniz, E. Erkiaga ta A. Onaindia.

2) *Noizko bialdu*: Aurtengo dagonillaren 31'rako.

3) *Zelan bialdu*: Makiñaz edo eskuz argi idatzita; lan bakotxaren buruan zeln gairako dan adierazo ta estalki txiki baten, lanarekin batean, egillearen izen-abizena ta zuzenbidea.

4) *Olerti-jata*: Beti lez Larrea'n ospatuko da, urri-llaren 12'an, meza nagusi, sari-banaketa, bazkari, itzaldi ta gainerakonkaz.

OLERTI-SARINETA

OLERTI gure aldizkari kuluna ba-dou aldaitz-gora, bere arigarran urtean, buru-lente. Gure erriak beñ maite izan dau bertsoa. Ortik, zelan izalaitzen ditun bertsolarien aleraldi bitziak? Olerkariak, maila batzuk gorago, estira orren esagunak erriarenizut; baiña bai bearezko gure teknizatzen onerako. Bertsolariak gaur ifloizkorik ugarien dogus. Eta olerkariak? Baiña onetik be: kaskarrak piloka, on-onak gitritzuago. Esta arritsekoo, edozein gau-satan artela jara oi da-ta; munduko literatura guztietan be bai.

Kaskarrak bizkortu ta onak obetu daitezcan, aurten be aurteko urteetan lez, geure sariketa izango dogu. Ona gaitak eta sariak.

- I.—Poesi liriko bat: 1.000 laurleko. Edozein gai ta luzera.
- II.—Poema bat: 1.000 laurleko. Poema onetan geure edes-tia aizatuko ba'litz, askotaz obe.
- III.—Amar Alegiko sorta: 500 laurleko. Amar ipuin txiki, polito polito bertsoz biribildurik.
- IV.—Bertso-sail trikia: 500 laurleko. Amabi bat bertso berri; lau-bost ahapaldi bakotxak.

QARRAK:

- 1) *Maikoak*: N. Etxaniz, E. Erkiaga ta A. Onaindia.
- 2) *Noizko bidali*: Aurtengo dagonillaren 31'rako.
- 3) *Zelan bidali*: a) Makiñaz edo eskuz argi idatzita; b) Lan bakotxaren buru-buruan, zein gairako dan adierazoko dauan zenbakia jarri; d) Poesi edo sorta buru naiz oiflean ez lpiñi egillearen izenik; e) Ita berezi batzuk jarri esauzarritzat, eta ondoren, estalki txiki baten barruan, egillearen izen-abizen eta zusenbidea daukazan txarteltxo bat sartu; estalki au liti ta, Isnarekin batera, aindiago baten barruan bialdu.
- 4) *Lan bialdutakoen jabetza*: Sarituak, OLERTIrenak izango dira; enparauak be, dain diranak beintzat, berak argitara emongo ditu.
- 5) *Olerti-jai*a. Beste urteetan lez, i arrea'n ospatuko dogu jai au; baiña ez Kristo Errege'ren egunean orain arte lez, datorren urtillaren 12'an baiña. Meza, sari-banaketa, itzaldi ta gairerako.

OLERTI EGUNA

Jai ederra Zornotza'ko karmeldar lekaretxean!
Iragartia egoanez, urtillaren 30'an, Kristo Errege
egunez ospatu gendun, Euskalerriko olerzale autu
baturik; beste zeinbatek ezin-etorria iragarri eben,
Bordari'k eta A. Goiria'k batik bat. Bizi-bizi agiri
zan alkar maitasuna ta umore ona olako jaictan oi
danez, bai goizean bai arratsaldean. Beti alai ta ba-
ketsu, zortzigarren urtez ospatu dogu aurren, eta,
egia esan, ba-dau jai onek gure biotzak sorgindu ta
erakarten ditun barne ixill adierazo eziña.

IRU OLERKARI IL YAKUZ

Lendik be lar oparotsu ez genduan olerki-sailla murritu egin dausku eriotzak.

Xabier Lazkoz, Ziga'ko erretore apala eroan euskun lenengo. Urteetan gexorik egona zan arren, ez gendun uste orren arin aldenduko yakunik. Apaiz ona, erriak ziñez maite ebana. Artista be ba-genduan, oso leuna. Sarri azaldu izan ditu OLERTI'K aren lan txukunak, bertso yaiotetan biribil. Eta langille bat bage geratzean, benetako tamal-miña sentidu bear naitaez. Biotz oarkor baten jabe zan, eta inguruko edozerk zauska goxoz ipiñi oi eutson barnea.

Bigarrena be, Bilbao'tar Alesander, «Maruri'tar Erramun», naiz-ta uler-eziñak iñarrosia, antzekoa gendun. Kantauri itxas ertzean, Armintza'n bizi zan aspalditik, baketsu ta langiile. Eder yakozan albo errietako jai ta jolasaldiak, eta a erromeri-zale ta ni izlari, sarri alkar aurkitu ta autu luzeak alkarrekin eukiak gara. Barnean erabilen kez karen garratza azaltzea be, atsegin yakon.

Olerkari zan. Iru liburu itxi dauskuz: *Biotza abeslari* (1927). *Lilixingar* (1928 ta 1965) ta azken orduko *Txori-egadak* (1965). Orreitzaz gaiñera ba-ditu, ta naikoa, OLERTI'n argitara emonak, eta argitara bageak be. Etzan geldi egotea, ta tarteka-marteka biotza estutuz zerion ezti goxoa liburuetan itxi euskun, erleak abaraskan legez.

Irugarrena Arrutza'tar Mikel dogu, gizon on, artez eta euskaltzale ausarta. Lengoan, maiatzaren 12'an, Bilbao'ra nintzanean, iragarri eustien aren il-barri samiña. Geixo samar ebiliena ba-nekian, baiña ez neban uste Jaunak orren arin erango euskunik. Lagun miñari azken agurra egiteko asmuz ara nintzanean, ainbat adiskide ta ezagun ziran ari nik lez azken agerraldia egiten. Danok genduan asmo bat, danok genkian zertara giñoazan. Aško ziran arpegia biurtzen ebenak begiak beera zerioen malkoa ez erakustearren. Lurra emonik, an Derio'n gelditzen da gure adiskide maite ta euskaltzale eredugarriaren gorpua.

Gogoa, barriz, betiko argitara egaztua. Jainkoak emon eutsan, bai, bere bizitza ederrez irabazi eban zeru atsegintsua. Goian bego aintzatsu ta atsegiñez; goian begoz Iru olerkariok, betiko argiz koroaturik, ainbat euskaltzale ta euskal olerkariz inguratuta. Beitez gure bitarteko, euskal arloan darabilgun asmo bikaiñean gu indartu ta azkortuaz.

OLERTI-EGUNA

Aurrera goaz urteak, eta gu eurekin. Geureari itxi barik, alari be. Mendi gailurrera igon nai dauzanak, sin zuzen, ibilitako bideari begiraldi bai emoteko noizik bein atzera bihurtu arren, bidean ezan egundo gelditu bear, gero ta gogotsuago aurrera elin baiño. Guk be, geure euskal arazoe-tan bereziki, orrelaxe jokatu bearrean gagoz: ames-mendian begiak zortotz doguzala, aurrera ta aurre-ra aspertu barik.

Zazpigarren urtean goaz olerti-zelaiak barna. Ta zerbeit ba-da, nunbait, gartan pitiñean. OLERTI langa aldizkariak, ba, bizitza laburra izan oi dabe geurez; garte ameslari batzuen kemenaci esker, sortu ta urte batzuetan bizi be bai, baiña aldatz-gorako izerdi-patsak porrot etaginda, laster ikusi oi ditugu txil-baztatteratzen. Guk, Jainkoari eskerrak, geure txikian aurrera dagigu, ta orrela bedi urte askotan. Oritarako, jakiña, guztion laguntasuna bear, bai diru-laguntza, bai lan-laguntza. Baakun au zarta: «Barasunak indarra dagi».

Aldizkariak batera, urtero, olerki eguna ospatzen da emen Larrea'n. Balta aurren be. Urrillaren 12'an guk olerki eguna jaitu genduan, igaz lez. Egun eder, aintzagarri ta barrukoia! Goizean, amaiketan, meza nagusi abestua N. Eixaniz jaunaren itzaldi mamintsuaz gozatuta, olerki sariztatuen irakurte, bazkari, itzaldi ta solasketa. Dana alkat maitasunean eta, beti lez, euskal giro bizi-bizian. Aurrerantz olerkari sakon bioztiak irabazi euskun aurren lenengo saria. Zorionak!

Goizeko amaiketan abestu zan meza nagusia, karmeldar eleiz txukuna jentez beterik egoala; dana euskeraz, abesti, otoitz, irakurgai, ebanjelio ta gain-nerakoak. Erxaniz'tar Nemesi apaizak, aurreko urteetan lez, Kristo Erregea ta euskal gauzak goraldur zitur bere itzaldi xamurrean.

Erxaniz ta A. Onaindia mai-buruko, sariak banandu ziran gero, alkar-giro biotz-erdiragarrian. Olerkari saritu bahotxak bere lana irakurri eban. Alkar izketa, Deunoro'ren bertsozko ekiñaldia ta Aurraitz'ek irakurri euskun Enbeita'tar Kepa'ri ta Lauaxeta zanari buruzko lanagaz amaitu gendun goizeko jarduna.

Guztiz, berrogetamabi olerki-lan artu ziran. Lirika saillerako *amar*; Aurraitz'en *Menperatuen didarra* ta Muniategi'tar Sabin'en *Itzartze* izan ziran sarituak; Aurraitz'en *Gau ankerra*'k aipamena izan eban. Poema soillerako, *iru*; Manterola'tar Gabirel olerkari zarrak, bere *Gure asmoa* lanarekin, eroan eban saria; Satarka'k (*Izar pozgarria*) eta Bilbao'ko seme E. Artetxe-Egia'k, aipamena. Alegi-saillerako, *bat*; Igotz'en 12 ipuiñezko sorta. Bertso-saillerako, *iru*: Enbeita'tar Balendin'en *Bertsolaria* (12 lan) saritua ta Paulino Solozabal'en *Buru* (14 lantxo), aipagarri.

Ordu bat eta erdietan, bazkari ederra, gizalege ta urkotasunik begikoenean. Zintzurra busti ta urdailla zerbait zanpatu ostean, euskaldunok oi dogunez, ba-zan an bertsorik, kanturik eta izkirimirik urgari. Ta, azkenez, jaiari ereiñotz-adar bikaiña jarteko, E. Erkiaga euskaltzaiñak, beste urteetan lez au be, labor ea zeatz mamindu euskun aurten il yakun Arrutza'tar Mikel euska! idazle ugari ta olerkari leunaren iduri betea.

1967'GNEKO OLERTI EGUNA

Ospatu zan aurten ere, zortzigarren aldiz, urtero egin oi degun Olerti eguna. Beeko gauza ta gaiekaz bakarrik konforme ez gauden talde bat bildu giñean Larrea'ko txoko atsegingarrían.

Kristo gure biotz-adimenen Errege danaren Egunna, urrillaren azkenengo igandea, aukerakoa da ortarako. Kristo, izan ere, Aitak eder osoa bere bitartez eta Beregan egin zuena degu. Ikusgarri diranak eta ez diranak Kristoren bitartez egiñak ditugu, eta gero, aldiak betetzean, gizon okertua bidean artez jartzen zerutik lurrera jatsi ta gizaseme guztion biotz-adimenetako Erregetza nai duena degu. Bere jaiean, beraz, ez datorkigu gaizki Olerti eguna.

Egunari berea emateko, amaiketan meza abestua izan genduan, dena euskeraz. Meza emaille ta izlari, Aita Onaindia, jai onen asnasa ta giro-emaille. Ondorean, aurtengo jai au Lauaxeta (1905-1937) zanaren omenez egiten gendulako, beiñolako olerkari garaia gogora ekarri ta Ibiñagabeitia'tar Andima'k aretzaz Karakas'eko aldizkari EMAN'en orren ederki idatzia irakurri zan lenen, gero olerki sarituak bakoitzak berea goitik esan eta sariak txalo artean banandurik.

Olerki auek artu ziran: 7 lirika sallerako, 12 alegi ta 20 lan bertso-sortarako; guztiz, 39 olerki. Sarituak berriz, lenengo saillean Aurre-Apr aiz'tar Balendin'en *Eriopetua* ta Muniategi'tar Sabin'en *Aizearen kideko*; bigarreanean, Igotz'en 12 alegiak, eta irugarreanean, Pedro Maria Aldana'ren sorta ta Enbeita'tar Balendin'ena. Zorionak guztioi!

Ordu bat eta erdietan bazkaria, umore onez, izkirimiriz, kantu ta bertsoz ornidua. Ostean, lauretan, gaurko olerkiari buruzko itzaldia, A. Onaindia'k, mamitsu ta jakingarria, zalantzazko momentu ontako olerkiari nola ekin esanik.

An bildu giñan guztiok, oso pozik alkarri agur egin genion, euskal olerkia gero ta geiago indarrazi ta zaitzeko asmoz kemenduta.

III'GAREN «AGIRRE-SARIA»

Ura oroiterazi, aren euskaltzasuna gureganatu ta eus-
kera iraunerazi ta bizkortzeko asmoz, Agirre ta Lekube'tar
Joseba Andoni deritzan saria, irugarrenez antolatzea erabaki
dute «Euskal-Kulturaren alde»-koek. Sari ori norgeiagokoa
izango da, ta ona emen sariketa orri buruz zeetasunak:

- 1) III'garren «Agirre-Saria», iru urte buru emana izango
da. Beraz 1967'garreneko Epaillaren 23'garrenean asi ta
1970'garreneko Epaillaren 22'garren arte, euskeraz argitara-
tuko dan idazti oberenak irabaziko du sari ori.
- 2) Idaztiaren gaia idazleak bere gain du.
- 3) Saria bat bakarra, ta milla dolarekoa izango da.
- 4) «Euskal-Kulturaren Alde» ren gain garatzen da epaia
ematea. Epaille bakoitzak autarki ixillez emango du bere
erabakia. Erdia baño bat geiago lortu dezan idaztiak saria
irabaziko du.
- 5) «Euskal-Kulturaren Alde»'k berak emandako erabakia
erabat onartzekoa izango da ala bearrez, ta ezta izango
iñork epai orren aurka gora yoterik.
- 6) Sari ori ezin zatibanatu diteke.
- 7) Orrenbesteko saria irabazteko lain izan liteken idaz-
tirik ezpalego iñori ezin eman lizaioke.
- 8) Epaia eskualdeka emana izan liteken susmoa erabat
kentzeko, sari ori ezin yaso lezake «Euskal-Kulturaren
Alde»'ko dan iñork. Edo ta baldin sari au norentzat izan
liteken erabakii bitartean, «Euskal-Kulturaren Alde»'ko nor-
baitek idaztiren bat argitara baleza, dalako ori ezin izan
liteke epaille.
- (9) Epaia garaiz emana izan dedin, idazle bakoitzak bere
idaztiaren bi ale igorriko balizkigu, txera onez artuko geni-
tuzke. Idazti bat zuzenbide ontara: 10, Bd. d'Alsace-Lorraine
— 64 Bayonne, Laburdi, eta bestea, 48 rue Singer, Paris XVI,
«Euskal-Kulturaren Alde»'ren izenean.